


« Euskoa Europako moneta lokala baliatuena bilakatu da milioi bat eusko-rekin zirkulazio ekonomikoan. Baina ez dezagun gezurrik asma, euskoaren eta bere sortzaileen helburua ezindaitezkeela kokatu kapitalaren aurkako borrokan. Testu honen helburua ez da kapitala hautsi nahian bidez tronpatu direla sinestaraztea, baizik eta euskoa-ren sortzea zentzugabeko ekonomian sartzeko aitzinapen berri bat dela Euskal Herrietan. Borroka molde eta estrategia berriak beharrezkoak dira kapitalismoaren errota hausteko eta ez konpontzeko. Baina denbora gehiago ez dezagun gal. Testu labur honek analisia orokor bat egin nahi baitu, beste borroka batzuk posible direla erakutsiz. »



TOUT MAIS PAS L'INDIFFÉRENCE

**EUSKOA, EKONO-
MIAREN KRITIKA
FALTSU BAT
EROSI BAINO,
EBATS DEZAGUN !**

**IZENGABEKOA
(2019)**

EUSKOA, EKONOMIAREN KRITIKA FALTSU BAT
argitaratua izan da lehen aldikotz «H.I.L» en
lehen zenbakian (Herri Ildo Liburuxkak) 2019ko
apirilean.


Kapitalarekiko gogoeta eta kategoria sozialeri uko eginez bide berri batzuk
sortzen dira.

Lanari uko egin, ebatsi, greban sartu, lekuak okupatu: hitz batez, abstraktuak
ez diren gizaki arteko harreman batzuk probatuz, horra gure bidea.

Denbora eta espazioarekiko harremanak irauli behar ditugu, arrisku,
balio eta baliagarritasun gogoetak alde batera utziz, urrunago joan,
jostatu, uko egin, matxinatu.

Izengabekoa,
2019ko apirila

2019ko iraila
Tout mais pas l'indifférence
tmpli@riseup.net



kapitalaren kategorietatik askatzeko, kapitalismoaren azkartze bat ekartzen du bere izaera totalitarioan, bere eragina sarrarazten baitu kultura eta herri gobernaezinetan. Euskoa ikusi behar da gogoeta politiko maltzur bat bezala, ohiko burges txiki ispiritu batean, positibo baino gehiago suntsitzailea dena. Kapitalismoaren modernizazio bat, entseatzen dena zentzugabeko merkatuari erran nahi konkretu baten ematea, sekulan ez entseatuz merkatu hori hausten. Ekonomia gure bizietatik hurbildu gure ingurumenean duen eragina azkartzen du.

Anitzek erabiltze balioa « ber »-emateko saiakera egiten dute, lotura sozialetatik ateratzen den ekonomia baten aurrean. Baina hori eginez ahazten da baliatze balioa badela trukatzeko balio bat baita, erran nahi duena balio abstraktu bat ebaluatzen dela behar den lan kopuruari salgaia sortzeko. Baliapen eta trukatzeko balioak ber txanpon baten bi aldeak dira. Euskoak, lokalki eta laborantzan oinarrituz balio berri batzuen sortzea helburu ukanez, balioaren abstrakzioa kukutzen entseatzen da. Beste manera etsigarri batean erranez, kapitalismoak inizatiba horien beharra du, heien integratzeko baloratze prozesuetan.

Ezker instituzionalista eta pazifistek prozesu horiek aspalditik kritikatu badituzte ere, ez dituzte sekulan zuzenki eraso. Ez gara hondamenditik aterako entseatuz sistema suntsigarri horren hobetzen. Lokalismoaren azkartzeak parte hartzen du kontsumoaren et produktioaren emendatzean, gune murriztuago batean baizik. Hortik goiti, produktore bakoitza gero eta zurrupatuagoa da kapitalaren kategorietan, eta totalitarismo ekonomikoak gure kontzientziak kolonizatzen segitzen ditu. Ez da euskoa baliatuz baseritarra balorizazio prozesu horretatik aterako dela, langilea esplotazioaz askatuko dela, izakia kontsumismotik aterako dela. Mugimendu lokalista hori, espekulazio eta finantzarizazio garai hauetan, konzientzia on batekin balorea sortzeko manera berri bat da.

Egin behar dena orain da praktika kritiko eta subertsibo batzuen sortzea kapitela erasotzeko bere osotasunean, eta ez gehiago kontzientzia oneko programetan erortzeko, ohean ongi lo egiteko. Gure etsaiak dira estatua, nazioa, politika, merkatua eta lana.

Zein dira borroka antikapitalista eta antisoberanisten tresna baliagarriak?

Ekonomiaren sabotaje orokorra.

EUSKOA, EKONOMIAREN KRITIKA FALTSU BAT EROSI BAINO, EBATS DEZAGUN !

2013 urteaz geroztik, diru moltsa xokoetan, ostatueta, liburu saltegietan edo dendetan paper berezi batzuk agertu dira: Euskoak. Moneta lokal berri hau *Euskal Moneta* elkartek sortu du. Kolore urdinekoak, gorrikoak, grisekoak, horikoak ala ubelekoak eta hurrenez hurren 1, 2, 5, 10 edo 20-ekoak izan daitezkeen txartel hauek euroa ordezkatzeko entseatzen dira Ipar Euskal Herrian, edo bederen, haren erabilpena txikitzen. Euskoaren helburuak? Trantsizio ekologikoa egitea, euskararen sustatzea, laborantza lokala babestea, finantza espekulazioa txikitzea, ekonomia lokala laguntzea, elkartearen diruztatzea eta hurbileko komertzioa babestea... Hori baizik ez!

Ezker ala eskuin instituzionalizatuek duten behar garaikide bati erantzuten dako euskoak : zentzugabeko ekonomia gure bizi moduetatik askatzen delarik, eta bere hedatze fase guzietan (produktzioa, banaketa, trukatzeko eta kontsumitzea) dena suntsitzen duelarik, nola murriztuko ditugu ondorioak? Produktzio moduaren eraldaketarako proposamenak edo ekonomiaren eraldaketa « etiko »-arentzako (gutxienez horrela aurkeztutakoak) entseguen ondorio guztien emaitza, gogoeta alferrak eta antzerki ekonomikoak inposaturiko irudimenetik atera ezin diren alternatiba huts batzuk soilik ez dira izan. Egiteko manera huts horiek bizi ekonomiko totalitarioaren infernua hikatzen

dira etengabe. Intentzio onek ez dute deus aldatzen, efektuak atakatzean arazoaren oinarria kontuan hartzen ez denean bezala. Gaur egun ere oraino sinesten ahal ote da monetaren aldaketa material simple batek kapitalaren joera totalitario eta suntsigarria hausteko gai denik?

Euskoa Europako moneta lokala baliatuena bilakatu da milioi bat eusko-rekin zirkulazio ekonomikoan. Baina ez dezagun gezurrik asma, euskoaren eta bere sortzaileen helburua ezin daitezkeela kokatu kapitalaren aurkako borrokan. Testu honen helburua ez da kapitala hautsi nahian bidez tronpatu direla sinestaraztea, baizik eta euskoa-ren sortzea zentzugabeko ekonomian sartzeko aitzinapen berri bat dela Euskal Herrietan. Borroka molde eta estrategia berriak beharrezkoak dira kapitalismoaren errota hausteko eta ez konpontzeko. Baina denbora gehiago ez dezagun gal. Testu labur honek analisisa orokor bat egin nahi baitu, beste borroka batzuk posible direla erakutsiz.

Landu dezagun moneta lokal baten ideia. Diru hori diru nazional edo supranazional batekin trukutzen da, eusko 1 = euro 1. Diru hori, besteak bezala, salgaien trukatzeko materia da. Trukatua izan ondotik gune batetik ez da gehiago ateratzen (gure kasuan, ipar euskal herria) eta produkzioaren fase desberdinak igarotzen ditu. Horrela gune murrizt batean gelditzen da: euskoarekin soilik elkartek erabakitzen dituen salgaiak eros daitezke. Elkartearen barne izan behar da moneta baliatzeko. Ondorioz, produkzio multzo berri bat sortzen da euroaren *bazterrean* : ez da ekonomiatik *ateratze* bat, baizik eta ekonomia paralelo bat. Giza interakzio guztiak moneta gauzakeriaz hedatzen dira. Gizabanakoen eta haien lotura sozialaren arteko separazioa segitzen da orduan. Beti bezala, gizakia bere eta besteen biziaz desjabetua da. Bistan dena, euskoarekin, interakzio horiek hurbilagoak direla, globalizazio eta abstrakzio gutxiagorekin direla iduritzen du. Alta, « lotura sozial » hori ez da hain konkretua : lanaren bereizte sozialak segitzen du, baita ere separazioak[1].

[1] Separazioaz hitz egiteak gizakiak berekiko eta besteekiko duen bereizketa aipatzea da, baina ere gizarteak berekiko eta konposatzen duten gizakiekiko bereizketa. Separazioan bizi gara gure biziak gauzatuak baitira, ez dugu gizaki arteko harremanik, baizik eta gizaki errota arteko lotura batzu : ekoizle/erosle, ikasle/erakasle..etab.. Damasiok idazten du bere « *Dans le chaudron du négatif* » liburuan : « gogoeta nagusiak dio separazio izate natural bat dela, eta ondorioz zilegia dela gizartearen : bere onarpenak bere etengabetasuna ekartzen du. Kritika partzialek bere azkartzea ekartzen dute, ez baitira joaten bere oinarrietara, baina bere ondorioetara. Kritika oso batek baizik, erakutsiz zein diren separazio hori posible egiten dutena, eralda dezake osoki gizartea. Iraultza bakarra osoa izan behar da ; aldaketa partziala entsegu guzietan separazioarekiko konponbide batera ekartzen dute. Separazioa ez dute hunkitzen. Iraultza entseguak ez dutelarik gizartea osoki erorazten, bere aldaketan laguntzen dute, separazioa modernizatuz, egokituz. »

Salgaiaren fetixismoaren fenomenoak ez da desagertzen. Kontsumitzaileak beharbada informazio gehiago ukanen dituela erosten dunari buruz, baina beti begiratzailea baizik ez da. Salgaiaren familiarizazioa, urruntasunaren txikitzea, ez da aski erradikala: salgaiaren ekoizleen ezagutzeak ez du bere merkantilismoa txikitzen, balore bat egoten da separazioa eta errolak beti hor baitira.

Arazoa da inizatiba horrek ez dituela zalantzan ezartzen Kapitalaren oinarritzko egiturak: balioztatze prozesua, lana, merkataritza eta subiranotasuna. Euskoa ez da kategoria horietatik askatzeko tresna bat, baina justuki ekonomiaren ondorioen estaltzeko baliapen bat, intentzio onez oinarritu dena. Euskoa bezalako entseguak, ez baitute helburu bezala gizarte horren osotasuna eroraraztea, bere azkartzea baizik ez dute ondorio gisa, egokitzen irakasten baitute kapitalismoa modernizatuz. Moneta horrek gure nortasuna baliatzen du, estatua eta merkataritzaen aurka kokatu den kultura eta Historia bat baliatuz dominazio kategorien tresna berri baten sortzeko. Erresistentzia kultura herrikoi horren suntsitzean parte hartzen du Euskal Herrietan. Adibidez, euskoak euskararen defentsa helburu gisa aurkezten du: segurtatzen du euskoa baliatzen den denda batean langileak euskaraz mintzo direla. Horregatik parte hartzen du euskararen integrazio kapitalista prozesuetan. Euskara mintzatzea salgai bat bilakatzen da, langilearen eginbehar bat bilakatu baita.

Independentziaren ikuspuntutik, bi kritika mahai-gainera ditzakegu: hasteko euskoa instituzio europar eta estatikoen menpe da arrunt, bere izatez eta bere izateko kondizioetan. Frantziak eta Europak onartzen dute bere izatea euroari lotua den diru bat baita. Eurorik gabe, euskorik ez. Hala, elkartek aldarrikatzen duen « euskal kulturaren mantentzea » frantses estatuak onartu duen koadro batean garatu delako dago hor. Ondorioz, euskoa ez da batere ez independentzia edo autonomia irabaztea ere, ez baitu euskal instituzio batek sortzen inguruko dominazioetatik aske izanez (Oharrarazi dezagun ez girela jartzen euskal estatu baten aldarrikapenean estatua historikoki kapitalari lotua den instituzio bat izanik ez baitzaigu iruditzen kapitalismotik aterabide bat izaten ahal denik). Hori erranik, euskoa espekulazioaren txikitzearekin aterabide bat dela erratea izugarriko gezur bat dela iruditzen zaigu. Diru horrek ez badu ekonomia lokalaren finantzazio mundial bat baimentzen, bere balioak ekonomiaren abiadura eta abstrakzioaren aldaketak segitzen ditu kapitalaren osotasun ekonomiko eta politikoan.

Azkenean, kultura baten Historia eta bere borroka potentziala baliatzea ekonomia paralelo bati zilegitasuna emateko, ekonomia hori ez delarik gai